

EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2022



ARAUDIA

- 1 - Lehen hezkuntzako ikasleek parte hartzen ahal dute.
- 2 - Lesakarekin zerikusia duten 20 eta 30 galdera dira.
- 3 - Apirilak 22 izanen da entregatzeko azken eguna.
- 4 - Orriak, behin betez gero, helarazteko bi aukera izanen dira:
kultura@betigazte.net helbide elektronikora bidaliz edo egoitzako atean dagoen *postontzian* sartuz. Bi moduetan, ez aherentzi izen abizenak era ikusgarrian paratzea.
- 5 - Ez da derrigorrezkoa galdera guzietan erantzutea.
- 6 - Ikasleak 3 kategoriatan banatzen dira:
 - “a” - Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak.
 - “b” - Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak.
 - “c” - Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak.
- 7 - “a” kategoriakoek 20 galdera erantzunen dituzte eta 2-3 pertsonako taldetxoetan antolatuko dira. “b” eta “c” kategoriakoek 30 galdera erantzunen dituzte, bakarka.
- 8 - Sariak honako hauek izanen dira:

“a” maila:	1. saria	90 euro taldeko
	2. saria	75 euro taldeko
	3. saria	60 euro taldeko
“b” maila:	1. saria	50 euro
	2. saria	40 euro
	3. saria	35 euro
“c” maila:	1. saria	50 euro
	2. saria	40 euro
	3. saria	35 euro

Oharrak:

- Sarietan, ez da dirurik emanen, Lesakako zerbitzuetan erabiltzeko txartelak baizik.
- Erantzunetan ortografia kontuan izanen da.
- Saritxoak zozketatuko dira sari banaketako ekitaldira hurbiltzen direnen artean.

**GALDETU! LESAKAN BARRENA IBILI! BILATU INFORMAZIOA!
HORRELA EZAGUTUKO DUZU ZURE HERRIA!**

ANTOLATZAILEA: BETI-GAZTE ELKARTEA



BABESLEA: LESAKAKO UDALA

